# Su artifizialak eta zezensuzkoak  Aste Nagusiaren gauetan protagonistak

*Joselontxos txarangak Serafin Barojaren Iriyarena doinua joko du zezen suzkoen azken egunean udaletxeko terrazan  zezensuzkoek ibilbidea egiten ari diren bitartean*

Aurten ere su artifizialak izango dira Aste Nagusiaren gauetako protagonista nagusienetako bat. Donostia Festakek 58.Nazioarteko Su Artifizialen Lehiaketaren kartela eta egitaraua aurkeztu ditu, eta horiekin batera, su artifizialen ondoren suarekin "jolasteko" aukera ematen duten zezen suzkoen egitaraua ere.

Carlos Lecube Alberdi argazkilariak irabazi zuen 2022ko VI. Su Artifizialen Argazki Lehiaketa, eta beraz, argazki irabazlea da aurtengo kartelaren protagonista. Argazkia Castellóko Martí pirotekniaren suak bota zituzten gauen hartu zuen.

Kartelak lehiaketan parte hartuko duten zazpi piroteknien izenak iragartzen ditu, baita ohikoa den Aste Nagusia ixteko ikuskizun piromusikala ere. Ohi bezala, gauero su-etxe batek izango du ardura 22:45ean su artifizialen ikuskizuna eskaintzeko. Segidako pirotekniek parte hartuko dute 58. Nazioarteko Su Artifizialen Lehiaketan:

- Abuztuak 12: Fully Fused Fireworks (Erresuma Batua)
- Abuztuak 13: Pirotecnia Zaragozana (Zaragoza)
- Abuztuak 14: Caffero Event Fireworks (Herbehereak)
- Abuztuak 15: Pirotecnia Tamarit (Valentzia)
- Abuztuak 16: Pirotecnia Xaraiva (Ourense)
- Abuztuak 17: Pirotecnia Valenciana (Valentzia)
- Abuztuak 18: Scarsella Fireworks (Italia)

Abuztuaren 19an jakitera emango da nork irabaziko duen Urrezko Maskorra eta 7.000 euroko saria, eta Aste Nagusiari amaiera eman aurretik ohitura bihurtu den ikuskizun piromusikalaz gozatzeko aukera egongo da, Madrilgo Pirotecnia Vulcano-ren eskutik. Bertan jaurtiko diren su artifizialek Mocedades, Sorotan Bele, La Oreja de Van Gogh, Gatibu, Izaro, Fito eta En Tol Sarmientoren doinuak jarraituko dituzte.

**Argazki lehiaketa**

Adinez nagusiko edonork parte hartu dezake Aste Nagusiko su artifizialen VII. Argazki lehiaketan, baita adin txikikoek ere, baldin eta gurasoen edo legezko tutorearen baimena aurkezten badute. Abuztuaren 12tik 19ra bitarteko ikuskizun piroteknikoetan egindako argazkientzako lehiaketa da, eta parte hartzaile bakoitzak gehienez 3 argazki bidali ditzake, betiere, kamera digitalarekin bertikalean egindakoak eta 100x140cm-ko proportzioan.

Lehiaketaren oinarriak https://astenagusia.donostiakultura.eus web gunean ikusi daitezke. Irabazleak 1.000 euroko saria jasoko du.

**Zezensuzkoa**

1984.urtetik aurrera su artifizialen ondoren zezensuzkoek hartzen dituzte erdialdeko kaleak, baina zezensuzkoaren jatorria XIX.mendeko hasierakoa da. Mila pertsonek,

heldu zein haurrek, haien aurrean korrika egiten dute Cervantes plazatik Boulervard-eraino egiten den entzierro berezi honetan.

Aurten, abuztuaren 19an,entzierroen azken egunean, zezensuzkoek eta partehartzaileek ez dute ibilbidea bakarrik egingo, izan ere, Joselontxos txarangak Serafin Barojak 1881.urtean idatzi zuen Iriyarena Donostiako zezensuzkoaren soinu-banda joko dute Udaletxeko terrazan ibilbidea egiten duten bitartean.

# Fuegos artificiales y toros de fuego protagonistas de las noches de Semana Grande

*La txaranga Joselontxos interpretará Iriyarena de Serafín Baroja desde la terraza del Ayuntamiento durante el último encierro de toros de fuego*

Los fuegos artificiales volverán a ser uno de los protagonistas principales de las noches de Semana Grande. Donostiako Festak ha presentado el cartel y el programa del 58º Concurso Internacional de Fuegos Artificiales, y junto a ello el tradicional encierro de toros de fuego que tiene lugar cada noche tras lanzar la colección.

El fotógrafo Carlos Lecube Alberdi fue el ganador del VI. Concurso Fotográfico de Fuegos Artificiales celebrado en la Semana Grande de 2022, y su fotografía, tomada el día en el que la pirotecnia Martí de Castellón lanzó su colección, es la protagonista del cartel de los fuergos artificiales de este año.

El cartel anuncia las siete casas pirotécnicas que participan en el concurso, así como el tradiciional espectáculo piromusical que cierra la Semana Grande. Como es habitual, cada noche, a partir de las 22:45horas, podremos ver la colección lanzada por una casa pirotécnica. Estas son las que participarán en el 58º Concurso Internacional de Fuegos Artificiales:

- 12 de agosto: Fully Fused Fireworks (Reino Unido)
- 13 de agosto: Pirotecnia Zaragozana (Zaragoza)
- 14 de agosto: Caffero Event Fireworks (Países Bajos)
- 15 de agosto: Pirotecnia Tamarit (Valencia)
- 16 de agosto: Pirotecnia Xaraiva (Ourense)
- 17 de agosto: Pirotecnia Valenciana (Valencia)
- 18 de agosto: Scarsella Fireworks (Italia)

El 19 de agosto se conocerá el palmarés y a la pirotecnia ganadora de la Concha de Oro y 7.000 euros de premio, antes de disfrutar el tradicional espectáculo piromusical con el que se cerrará la Semana Grande, y que correrá a cargo de la madrileña Pirotecnia Vulcano. En el mismo se lanzarán fuegos artificales al ritmo de la música de Mocedades, Sorotan Bele, La Oreja de Van Gogh, Gatibu, Izaro, Fito y En Tol Sarmiento.

**Concurso fotográfico**

Todas las personas mayores de edad pueden participar en el VII.Concurso Fotográfico de Fuegos Artificiales de Semana Grande, tambié aquellas personas menores de edad, siempre y cuando cuenten con la autorización de sus progenitores o tutores legales. Se trata de un concurso al que se pueden presentar todas aquellas fotografías de fuegos artificiales tomadas entre el 12 y el 19 de agosto. Cada participante podrá presentar un máximo de 3 fotografías, que estén realizadas con cámara digital, en vertical, y con una proporción de 100x140cm.

Las bases del concurso se pueden consultar en https://astenagusia.donostiakultura.eus. La persona ganadora recibirá un premio de 1.000 euros.

**Toro de fuego**

Seis toros de fuego cogen el relevo de los fuegos artificiales y corren por las calles del centro una vez finalizado el lanzamiento de la colección cada noche desde 1984, aunque sus orígenes se remontan a pricipios del siglo XIX. Miles de personas, pequeñas y mayores, corren ante ellos en este encierro tan especial que discurre entre la plaza Cervantes y el Boulevard.

Este año, el 19 de agosto, coincidiendo con el último encierro, los toros de fuego y las y los participantes no recorrerán solos el recorrido, puesto que la txaranga Joselontxos interpretará desde la terraza del Ayuntamiento Iriyarena, la banda sonoroa que Serafin Baroja escribió en 1881 para el toro de fuego.